



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

2017/03/08

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu Eusko Jaurlaritzari DSBE-RGIan %8ko igoerea apliketako eskatzerik

Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Batzordean gaur izandako eztabaidea, datorren astean Eusko Legebiltzarrean egongo danaren aurrekaria izan da, eta Legebiltzarrak, gai horren inguruko bost hilebeteko gogoeta prozesua zabaltzea adostu eta hilebete bira heldu da.

Podemos Bizkaia taldeak, Lanbide Arteko Soldataren igoereari jagokon %8ko igoerea apliketako eskatzen eutsan arauz besteko proposamen baten bitartez Eusko Jaurlaritzari, Diru-Sarrereren Bermerako eta Gizarteratzerako abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritako zenbatekoak egokituz. EH Bilduk beste puntu bat gehitu deutso azkenean onartu ez dan testuari, aitaturako igoera hori aplikau aurretik, azkenengo lau urteetan egon dan “%7ko murrizketea” ondore barik itzi daiten.

Talde biek, “legea betetea” defendidu dabe, euren berbetan, oinarritzko hileko zenbatekoa –“619 euro”–, azkenean “49,52 eurotan” igotzeko. Asun Merinero batzordekideak, Eusko Jaurlaritzak, KPIra erreferentziatuz, hasieran markau eban “%1,5etik” oso urrun dagon igoera hori defendidu dau, “gizarte justiziarengaitik eta bardintasunarengaitik”, eta ekonomiaren ikuspegitik “bideragarria” dalako.

Foru Gobernua eusten daben taldeetatik, Josu Montalbán sozialistek, eusko Legebiltzarrak berak, abenduan, EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen aldeko eretxiagaz, Bizkaiko Batzarrak, DSBE-RGIaren inguruan zabaldu dan “5 hilebeteko gogoeta” prozesuagaz bat egitea defendidu dau. Azterketa horretatik, “kontuan izan beharreko erreferentziatzko indizearen” eta “lan arloa aktibetako programa eta baliabide barriei emon beharreko bultzadaren” inguruko ondorioak aterako dira. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek alkarregaz aurkeztu daben zuzenketa-eskean be alderdi hori aitutzen da, Diru-Sarrereren Bermerako Errentea jasoten daben eta lan egiteko moduan dagozan pertsonak lan munduan sartzen laguntzeko, “kronifikazino egoerak” saihesteko.

Podemos Bizkaia adierazo dauenez, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen zuzenketa-eskeak “betiko trikimailu berberak erabiltea” dakar, DSBE-RGIa kobretan daben pertsonengan “zalantzak biztuz”, horren eukia enplegu politikakaz lotuz. Ildo horretan, Josu Unanue EH Bilduko bozeroaleak, eskintza horretan “oso adierazpen hotzak eta kalkulauak” ikusten dirala esan dau.

Ana Esther Furundarena jeltzaleak, Gasteizen lortu dan “akordio handia” Bizkaitik be bultzatzeko gonbitea egin deusie talde horreei, PP taldea izan zalako akordio horretatik kanpo geratu zan bakarra. Bere eretxiz, Euskadi “aitzindaria” izan zan 1989an, “askori onartzea kostetan jaken” laguntza hori martxan jartean, eta DSBE-RGIak pobrezia eta bazterketa indizeak murrizteko tresna “egokia” izaten jarraitzen dauela defendidu dau. 1986an Euskadin “%16,1ekoa” zan pobrezia tasea “%5,9ra” jatsi zan 2014an, parte batean laguntza horreei esker. Hori bai, bere taldearen eretxiz, “alkartasunean oinarrituta” dagon laguntza horrek bere “iraunkortasuna” gorde behar dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Furundarenak datuakaz erakutsi gura izan ditu Euskadi arlo horretan egiten ari dan esfortzuak “hemengo talde batzuk hori onartzea kostau egiten dan arren”. “Podemoseko liderrak” – Pablo Iglesias aitatu– “onartu egiten dau, sarri askotan jarten dauelako eredu moduan” Estadu mailan, Euskadiko babes sistema, gogoratuazo dauenez. Jeltzaleak, Euskadik, pertsona bakoetako, errenta horretara bideratzen dituan “177 euroak” aitatu ditu. Horren aurrean, Alemaniak “183 euro” jarten ditu (per capita errentea 20.000 euro altuagoa izanda), Britainia Handiak “143 euro” eta Espainiak “11 euro baino ez”. Datu horreek “ze lekutan ari garan mobiduten argi eta garbi erakusten dabe”, esan dau.

PP taldeak, Eduardo Andrés batzordekidearen berbetan, bere taldeak DSBE-RGIaren aldaketea defendiduten dauela gogoratuazo dau, bere “aldi baterako” funtzinoa bete daian –pentsiodunen kasuan izan ezik– Euskadin errenta hori “kronifiketan ari dala” hautematen dabelako. Talde horren eretxiz beharrezkoa da erregulazinoan aldaketea sartzea “iruzurragak eta irregulartasunakaz amaitzeko, baina horrek ez dau esan gura hartzaileen gainean zalantzak sortu behar diranik”, horreetatik “gehienak zintzoak diralako eta lan merkaduan sartzen ahalegintzen ari diralako”. Batzordekide popularraren eretxiz, “benetan behar daben pertsonak” babesteko balio behar dau.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkaria, bere aldetik, gai hori Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzearen alde agertu da, eskumenen kontua dala eta, gai horrek Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuari jagokolako, baina planteetan dan igoeraren bideragarritasunaren inguruko azterketea egitea defendidu dau.

GIZARTERATZE ARLOKO HITZARMENAK

Beste alde batetik, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako diputatuak agerraldia egin dau, EH Bilduk eskatuta. Agerraldi horretan, 2017an, hirugarren sektoreko alkarreakaz denpora muga desbardinak (6 edo 12 hilebete) dituen hitzarmenak egotearen zergaitiak azaldu ditu.

Diputatuak adierazo dauenez, sinatutako hitzarmenen denpora mugea “ez da gauza barria” beste urte batzuetan be gauza bera egin dalako, baina sei hilebetera mugatuta dagozanak, beste sei hilebetez luzatzeko aukerea daukienak, irabazi asmorik bako erakundeakaz sinatu diran programen “planteamentu barriagaz” eta “zuhurtziak” erespideagaz dagoz lotuta, aurton gizarteratze arloko foru politikak Gizarte Zerbitzuen Karterari buruzko Dekretu barriaren eskakizunetara “egokitzeko prozesua” ari dalako gauzatzen.

Josu Unanue EH Bilduko bozeroalearen eretxiz, aurrekontuetan “%2,8ko murrizketearen” ostean egingo dan egokitzapen hori zelanbaiteko lan “ezegonkortasuna” ari da zabaltzen hirugarren sektorean, “beharginak kaleratzea” eragiten ari dalako.

Laespadak, Aldundiak programen jarraikortasuna bermatzen dauela adierazo dau. Aitatutako “jatsierea” Gizarteratze Laguntzei (GL-AIS) jagoke, egoera barrira egokitu behar izan diralako, igaz “ez ziralako agortu”. Diputatu andrearen eretxiz, barriz, Kartera Dekretu barriaren eraginez gizarteratze arloko politikak barriro planteetan diranean, behargin kopuruak hazkunde “garbia” izango dau. Etorkezinean, eta Dekretua “finkatuta” dagonean, Aldundia “bi gehi bi” (urte bi, beste ekitaldi birako luzapen aukereagaz) hitzarmenetara itzuliko da.

Une honetan, Laespadak adierazo dauenez, Aldundiak, 6 hilebeteko iraupeneko “15 hitzarmen”, 12 hilebeteko “10 hitzarmen” eta urtebeteko eta beste urte baterako aukerako luzapeneko “28



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

hitzarmen” sinatu ditu. Urte erdiko hitzarmenak, drogamenpekotasunak eta buruko gaixotasunak dituen pertsonakaz behar egiten daberen programetara dagoz zuzenduta batez be, eta “2.684.790 euro” hartzen ditue; eta, Gizarte Zerbitzuen Karteran jasoten ez diran beste gizarteratze programa batzuen inguruko gainerakoek “1.671.709 euro” hartzen ditue.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

08/03/2017

Juntas Generales de Bizkaia rechaza instar al Gobierno vasco a que aplique una subida del 8% en la RGI

El Parlamento de Bizkaia ha debatido hoy una enmienda transaccional de EH Bildu y Podemos Bizkaia que instaba al Gobierno vasco a aplicar una subida del “8%” para este año en la cuantía que reciben los perceptores de la RGI. En la iniciativa, rechazada por el resto de formaciones de la Cámara vizcaína (PNV, PSE-EE, PP y Mixto), se demandaba a su vez la recuperación de “un recorte del 7%” que se ha producido durante “los últimos cuatro años”.

El debate producido hoy en la comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad de las Juntas Generales es un adelanto del que se producirá la semana próxima en el Parlamento vasco y llega dos meses después de que la Cámara autonómica acordara la apertura de un proceso de reflexión de cinco meses sobre esta cuestión.

El grupo Juntero Podemos Bizkaia ha traído a la Cámara vizcaína una proposición no de norma que venía a instar al Gobierno vasco a aplicar la subida del 8% correspondiente al aumento del Salario Mínimo Interprofesional (SMI), adaptando las cuantías establecidas por la Ley 18/2008 para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social. EH Bildu ha aportado un nuevo matiz al texto desestimado para que se incluyera también dejar “sin efecto el recorte del 7%” producido durante los últimos cuatro años, antes de aplicar la mencionada subida.

Ambas formaciones han defendido, según ellas, “que se cumpla la ley” para que la cuantía mensual básica –“619 euros”- se incremente finalmente en “49,52 euros”. La apoderada Asun Merinero ha defendido esta subida, alejada del “1,5%” que se marcó inicialmente el Ejecutivo vasco al referenciarla al IPC, “por justicia social e igualdad” y porque es “viable” económicamente.

Desde las formaciones que apoyan al Gobierno foral, el socialista Josu Montalbán ha defendido, de conformidad a lo aprobado por el propio Parlamento Vasco en diciembre con el apoyo de PNV, PSE-EE, EH Bildu y Podemos Bizkaia, que la Cámara vizcaína se sumase al proceso de “reflexión” de “5 meses” abierto sobre la RGI. Del análisis, se extraerán conclusiones sobre “el índice de referencia a tener en cuenta”, y sobre el “impulso a nuevos programas y recursos para la activación laboral”. En una enmienda presentada conjuntamente por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos se cita también este aspecto para permitir la inserción laboral de las personas que perciben la Renta de Garantía de Ingresos, en un intento por evitar “situaciones de cronificación”.

Podemos Bizkaia ha sostenido que la enmienda de PNV y PSE-EE supone “utilizar los mismos trucos de siempre” para poner “una sombra de duda” sobre las personas que cobran la RGI, al ligar su contenido con políticas de empleo. En esta línea el portavoz de EH Bildu, Josu Unanue, ha tachado la oferta de “declaraciones frías y calculadas”.

La jeltzale Ana Esther Furundarena ha invitado a estos grupos a apoyar desde Bizkaia el “gran acuerdo” alcanzado en Vitoria, del que sólo se desmarcó el PP. Para ella, Euskadi fue “pionera” en 1989 con la implantación de esta ayuda que “a muchos les cuesta reconocer” y ha defendido



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

que la RGI siga siendo una herramienta “adecuada” para reducir los índices de pobreza y exclusión. En parte gracias a ella, la tasa de pobreza en Euskadi que en 1986 se encontraba en el “16,1%”, bajó en 2014 hasta el “5,9%”. Eso sí, para su grupo esta ayuda, “basada en la solidaridad”, debe preservar su “sostenibilidad”.

Furundarena ha querido demostrar con datos los esfuerzos de Euskadi en este terreno, algo que “cuesta que reconozcan aquí algunas formaciones” pero que “sí reconoce por ejemplo el líder de Podemos” -en referencia a Pablo Iglesias- quien “muchas veces pone como ejemplo” en el Estado el sistema de protección vasco, ha recordado. La jeltzale se ha referido a los “177 euros” que dedica Euskadi por persona a esta renta, frente a los “183 euros” de Alemania (con 20.000 euros más de renta per cápita), los “143 euros” de Gran Bretaña o los “apenas 11 euros” de España. “Vean en qué franja nos movemos”, ha dicho.

Por su parte, el PP, en boca de su apoderado Eduardo Andrés, ha recordado que su grupo defiende la modificación de la RGI para que cumpla con su función “temporal” -excepto para los pensionistas- ya que advierten de que en el País Vasco esta renta “se está cronificando”. Ven necesario un cambio en la regulación “para terminar con el fraude y las irregularidades, sin que esto sirva para sembrar la duda sobre sus perceptores”, los cuales “la mayoría son honrados y quieren integrarse en el mercado laboral”. A juicio del apoderado popular, debe servir para amparar a “personas que realmente lo necesiten”.

Por su parte, el representante del grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha animado a que esta cuestión se debata en el Parlamento Vasco por una cuestión competencial, ya que el asunto afecta al Presupuesto del Gobierno vasco, aunque ha defendido que se haga un análisis sobre la viabilidad de la subida que se plantea.

CONVENIOS DE INCLUSIÓN SOCIAL

Por otro lado, la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, en una comparecencia solicitada por EH Bildu, se ha referido a los motivos que provocan que existan convenios de diferente límite temporal (6 o 12 meses) en 2017 con las asociaciones del tercer sector.

La diputada ha señalado que el límite temporal en los convenios firmados “no es una novedad” con respecto a otros años, aunque ha advertido que los acotados a seis meses, que tienen la posibilidad de prorrogarse otros seis, enlazan con un “replanteamiento” de los programas con entidades sin ánimo de lucro y un criterio “de prudencia” debido a que este año se está produciendo una “adecuación” de las políticas forales de inclusión a las exigencias del nuevo Decreto de Cartera de Servicios Sociales.

Para el portavoz de EH Bildu, Josu Unanue, esta adecuación, que se producirá tras un “recorte” presupuestario del “2,8%”, está abriendo cierta “inestabilidad” laboral en el tercer sector, ya que la misma provoca que “se echen a trabajadores a la calle”.

Laespada ha mantenido que la Diputación garantiza la continuidad de los programas. La referida “bajada” corresponde a las Ayudas de Inserción Social (AIS) que se adecuaron a una nueva situación ya que el año pasado “no se agotaron”. La Diputada cree, por contra, que el replanteamiento de las políticas de inclusión social por el nuevo Decreto de Cartera, producirá un incremento “neto” del número de trabajadores. En el futuro, y una vez que el Decreto esté



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

“afincado” la Diputación volverá a los convenios “dos más dos” (dos años con posibilidad de prórroga para otros dos ejercicios).

En estos momentos, la Diputación ha firmado, según Laespada, “15 convenios” de 6 meses de duración, “10 convenios” de 12 meses y “28 convenios” de un año con posibilidad de prórroga para otro. Los acuerdos de medio año dirigidos en mayor medida a programas para personas drogodependientes y con enfermedades mentales, suman una inversión total de “2.684.790 euros”; y, el resto, que se refieren a otros programas de inclusión social no incluidos en la Cartera de Servicios Sociales, alcanzan un montante de “1.671.709 euros”.